



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urriaren 31n

88 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Ikerketarako, garapen zientifiko eta teknologikorako, berrikuntzarako, eta enplegu sustapenerako pizgarri fiskalei buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).
- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko Foru Legeko 75.5 artikulua aldatzeko Foru Lege proiektua (8. or.).
- Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).

C SAILA:

Planak, Komunikazioak eta Programak:

- Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko foru plana (10. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Larrako Natur Erreserban eskian aritzeari buruzko azterlanak egin ditzan (11. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da batzorde bat era dezan, hezkuntz etapetan hainbat ikasgairen irakaskuntza aztertzeko (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, Plan Gerontologikoaren garapenari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, hizkuntza politika berrikusteari buruzkoa (16. or.).

- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, eskola kontseiluak ezagutarazteko kanpainari buruzkoa (17. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Toki Administrazioako bitarteko idazkari eta kontu-hartzaileei buruzkoa (18. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Zeliakoen elkarrekin eta entitateekin Nafarroako Gobernuak egin beharreko negoziazioen egoerari buruzkoa (19. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Cintruénigoko kultura-azpiegiturei buruzkoa (19. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Cintruénigoko osasun-azpiegiturei buruzkoa (20. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Cintruénigoko industria-azpiegiturei buruzkoa (21. or.).
- Dokumentuak argitaratzeko epe eta irizpideei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Ikerketarako, garapen zientifiko eta teknologikorako, berrikuntzarako, eta enplegu sustapenerako pizgarri fiskalei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko urriaren 9an hartutako erabakiaren bidez, ikerketarako, garapen zientifiko eta teknologikorako, berrikuntzarako, eta enplegu sustapenerako pizgarri fiskalei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Ikerketarako, garapen zientifiko eta teknologikorako, berrikuntzarako, eta enplegu sustapenerako pizgarri fiskalei buruzko Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2000ko azaroaren 20ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Ikerketarako, garapen zientifiko eta teknologikorako, berrikuntzarako, eta enplegu sustapenerako pizgarri fiskalei buruzko Foru Lege proiektua

Garapen zientifiko eta teknologikoa oinarri guztiz funtsezkoa da enpresen lehia-gaitasuna faboratzeko eta azken batez aurrerabide ekonomiko eta soziala bultzatzeko.

Ildo horretatik, ikerketa zientifiko, garapen eta berrikuntzarako 2000-2003 Plan Nazionalean aditzaera ematen denez, hazkundera, enplegua, bizitzaren kalitatea eta azken batez gizartearen etorkizuna segurtatzeko ezinbestekoa da ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikorako gaitasuna indartzea eta beraz administrazioak oinarriko ikerketa indartu behar du, osagai funtsezkoa baita jakitatearen berrekuntza solidarioki bultzatzeko, eta horrez gain giro egokia sortu behar du enpresak bete-betean lot dakizkion berrikuntza teknologikoaren kulturari.

Foru Komunitateak beti bultzatu izan ditu ikerketa eta garapenerako jarduerak. Horrela, konparazio, Foru Diputazioak 1977ko ekainaren 10ean hartu Erabakiak formalki abiatu zuen Nafarroako enpresen ikerketa aplikatua diruz laguntzeko asmoa. Ondoren, halaber, Industri politikarako unean-uneke neurrien gaineko eta inbertsioa eta enplegua sustatzeko Araua etorri zen, 1982ko ekainaren 23an, zeinaren bidez Foru Diputazioak, sustapen jarduera orokorren artean, asmoa agertu zuen lehentasuneko arreta emateko ikerketa eta garapen teknologikoa bultzatzeari, eta bai hartarako laguntzen oinarriak finkatu ere, zeinak irailaren 16ko 2/1982 Foru Dekretuak onetsitako erregelamenduan zehaztu ziren.

Orobat, Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauak indar hartu zutenetik (1978ko abenduaren 28an Foru Diputazioak onetsi ziren), kuotako ken-

ketak sartu ziren, jarduera horiek zekartzaten inbertsio eta gastuen aldera.

1999ko martxoaren 15ean "Nafarroako 2000-2003 Plan Teknologikoa" onetsi zen, Nafarroan garapen industrial eta profesionalean esku duten guztiek parte hartuz itxuratua, enpresen lehia-gaitasuna hobetu eta enplegua sustatzea helburu, eta bai industriaren oinarri zientifiko eta teknologikoa indartzea ere.

Planean bertan aditzera ematen da zein garrantzi handia izan duen, arestian esan helburuak iristeko, ikerketa eta garapena bultzatzeko pizgarri fiskalen araubideak.

Foru Komunitatearen helburu lehenetsia delarik ikerketa eta garapeneko jarduerak aurrerazi eta bultzatzea eta Nafarroa orain den bezala gastu eta inbertsio horietan gailen irauaraztea, horrek azken batez Komunitate honen aurrerabide ekonomikoa berretu baizik ez baitu egiten, ezinbestekoa da pizgarri fiskalen araubidea aldatzea, hobetu eta gaurkotu beharrez.

Beste alde batetik, politika ekonomikoaren beste helburu funtsezko bat kontratazio iraunkorra bultzatzea da. Horri gagozkiola, Enplegua Bultzatzeko Planak, Nafarroako Parlamentuak onetsia, ezarri du bere 6.4 puntuan zer neurri hartuko diren enplegu iraunkorra bultzatzeko, Estatuaren eta Foru Komunitatearen laguntzak egoki koordintatzeko neurriak hartu ahal izatea helburu, Nafarroarenak ausarkiago banatuz desenplegu handiena izaten duten sektoreetan. Neurri fiskal horiei dagozkiela, Sozietateen gaineko Zergan ezarritako pizgarriak hobetzea proposatzen zen, arestian aipatu gizatalde horien kasuan berretzeko.

Orain arteko helburu horiek iristeko, bada, Foru Lege hau onesten da, bi artikulua, Xedapen Gehigarri bat, Xedapen Indargabetzaile bat eta Azken Xedapen bat dituenak.

1. artikuluan abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeari (Sozietateen gaineko Zergarena) behar diren artikulua aldatzen zaizkio, ikerketa eta garapen zientifikoa eta berrikuntza teknologikoa bultzatzeko pizgarri fiskalen araubide berria ezartzeko. Araubide horretan aipagarria da zer ahalegina egiten duen Foru Legeak kontzeptuak bereizteko zer den ikerketa eta garapena, eta nola kontzeptu berria sartzan den: berrikuntza teknologikoa.

Beste alde batetik, kenketa portzentajeak berretzen dira eta haien eremua zabaltzen; ezartzen da kenketa muga ez dela kuotan aplikatuko eta amortizatzeo askatasunaren onura hedatzen

ikerketa eta garapen jarduera horien peko eraikitara.

2. artikuluan enplegu egonkorra 2000. urtean sustatzeko neurri fiskalak ezartzen dira, Nafarroako Parlamentuak behiala onetsi zuen Enplegua Sustatzeko Plana betearazteko, desenplegurik handiena duten gizataldeentzako laguntzak berretzeko agintzen baitzuen.

Halatan, bada, 200.000 pezetako kenketa bat ezartzen da Sozietateen gaineko Zergaren kuantan, langabealdi luzeko pertsonak, 45 urtez goitiko langabeak eta emakume langabeak mugagabe kontratatzen diren aldiko, betiere kontratu horiek Gizarte Segurantzako kotizazioetako hobariak badituzte, neurri fiskal, administratibo eta gizarte ordenekoei buruzko abenduaren 29ko 55/99 Legeko 28. artikulua ezartzen dituenak.

Halaber, kenketa hori bera izanen dute 30 urtez beherako gazte langabeentzako kontratu mugagabeek ere, baldin lanbidean abiatzeko ikastaroak eta Enplegurako tailerrak egin badituzte.

1. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen aldaketak.

2000ko urtarrilaren 1etik aurrera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko artikulua ondoren aipatzen direnek honako testua izanen dute:

1. 16.1.a) artikulua

"a) Ikerketa eta garapenerako soilik eta erabat erabiltzen diren ibilgetu materialeko nahiz ez-materialeko elementuak.

Eraikinek zilegi izanen dute libreki amortizatzea ikerketa eta garapen jardueran erabiltzen diren partean."

2. 65.2. artikulua

"2. Kenkaria aplikatzea, ondasun eta diru kopuru beretarako, ezin baterako da zerga honetan ezartzen den beste inolako onura edo pizgarri fiskalekin, salbu eta 66. artikuluan ezartzen diren kenkariak eta 16. artikuluko 1 zenbakiko a) eta b) letrek aipatzen duten amortizazio askatasuna."

3. 66. artikulua.

"66. artikulua. Ikerketa zientifiko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egitearen ziozko kenkaria.

1. Ikerketa eta garapeneko jarduerak egiteagatik, horren aldera zerga aldi horretan izandako gastuen 100eko 40ko kenkaria egiten zaio kuota osoari.

Aurreko lerroak aipatu duen kenkariaren gain, zerga aldi horretako gastu hauengatik ere beste 100eko 10eko kenkari bat eginen da:

a) Ikertzaile kualifikatuak soilik ikerketa eta garapen jardueretan aritzeko kontratatzeak erakundeari sortu dizkion gastuak.

b) Unibertsitateekin, ikerketa erakunde publikoekin, edo berrikuntza eta teknologia zentroekin kontratatutako ikerketa eta garapen proiektuen gastuak, baldin zentro horiek berrikuntza eta teknologia zentroak arautzeari buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuak halakotzat jo eta erregistratzen dituenetakoak edo Nafarroako Gobernuak lehendik halakotzat aitorturik dituenetakoak badira.

2. Ikerketatzat hartuko dira ezagupen orokor zientifiko eta teknikoaren bilaketa edo zabalkunde guztiak, baldin produktu, prozesu edo zerbitzu berriak sortzeko edo nabarmen hobetzeko balio badute.

Garapentzat hartzen da ikerketa edo bestelako ezagupen zientifiko baten emaitzak gauzatzea proiektu teknikoetan, produktu, prozesu edo zerbitzuentzako eskema edo diseinuetan, berriak izan nahiz aldatuak edo hobetuak, saltzekoak nahiz erabiltzekoak, horien barnean dela merkaturatzerik gabeko prototipoak sortzea. Jarduera honen barnean egonen ere da beste produktu, prozesu edo zerbitzuen formulazio kontzeptuala egitea eta bai hasierako erakustaldiak egiteko proiektuak, betiere baldin produktu horiek ezin bihurtu edo erabili badira aplikazio industrialetarako edo merkaturatu esplotatzeko.

Ikerketa eta garapeneko jardueratzat hartzen da "software" aurreratua modutzea, baldin aurrerapen zientifiko eta teknologiko nabarmena ekartzen badu teorema eta algoritmo berriak garatuz edo sistema operatibo edo lengoia berriak sortuz. Ez dira hemen sartzen "softwarearen" inguruan egiten diren ohiko jarduerak.

3. Aurreko zenbakian sartu gabeko berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteak eskubidea emanen du kuota osoan kenkari bat egiteko, zenbaki honetan ezarri diren baldintzetan.

Berrikuntza teknologikotzat jotzen da produktu edo produkzio prozesu berriak edo lehengo hobekuntza teknologiko nabarmenak lortzea emaitza duen jarduera. Berritatzat joko dira lehengo produktu eta prozesuen aldean mamizko ezaugarri teknologiko diferentzialak ageri dituztenak. Jarduera honetan sartuko da produktu eta prozesu berriak plano, eskema edo diseinu batean gauzatzea eta bai merkaturatzerik gabeko prototipoak

eta hasierako erakustaldiak egiteko proiektuak edo proiektu pilotoak sortzea, betiere baldin ezin bihurtu edo erabili badira aplikazio industrialetarako edo merkaturatu esplotatzeko. Hemen sartzen ere dira diagnostiko teknologikoko jarduerak, soluzio teknologiko aurreratuak identifikatu, definitu eta orientatu beharrezkoak, hurrengo a) letrak aipatzen dituen erakundeek eginak, zein ere emaitza duten.

Kenkariaren oinarria kalkulatzeko zerga aldi horretan berrikuntza teknologikoko ekintzetan honako kontzeptuengatik izandako gastuak hartuko dira aintzat.

a) Unibertsitateei, ikerketa erakunde publikoek, edo berrikuntza eta teknologia zentroi enkargatu zaizkien ikerketa eta garapen proiektuen gastuak, baldin zentro horiek Berrikuntza eta teknologia zentroak arautzeari buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuak halakotzat jo eta erregistratzen dituenetakoak edo Nafarroako Gobernuak lehendik halakotzat aitorturik dituenetakoak badira.

b) Diseinu industrialia eta produkzio prozesuen ingeniariak, horien barnean dela plano, marrazki eta euskarriak itxuratzea, produktu bat fabrikatu, saiatu, instalatu eta erabiltzeko behar diren deskripzio elementuak, zehaztapen teknikoak eta funtzionamendu ezaugarriak definitzekoak.

c) Teknologia aurreratua erostea: patenteak, lizentziak, "know how" delakoa eta diseinuak. Subjektu pasiboarekin lotutako pertsona edo entitateei pagatutako diru kopuruek ez dute kenkarirako eskubiderik emanen. Ez da zilegi izan kontzeptu honi dagokion oinarria urtean 50 milioi pezeta baino gehiagokoa izatea.

d) ESO 9000, GMP edo antzeko serieko kalitate ziurtateko arauak betetzearen egiaztagiria lortzea, arau horiek ezartzeak dakartzen gastuak barnean hartu gabe.

Kenkariaren portzentajea 100eko 15ekoa izanen da a) letran aurreikusten diren kontzeptuetarako eta 100eko 10ekoa gainerako letretan aurreikusten direnetarako.

4. Honakoak ez dira ikerketa eta garapen jardueratzat hartuko eta ez berrikuntza teknologikoko jardueratzat:

a) Berritasun teknologiko edo zientifiko nabarmenik berekin ez dakarten jarduerak. Bereziak produktu edo prozesuen kalitatea, lehengo produktu edo produkzio prozesu bat hobetzeko errutinazko ahaleginak eta lehengo produktu edo produkzio prozesu bat bezero batek berriaz eskatutakoetara moldatzeko lana, eta lehengo produktuak

antzeko beste batzuetatik bereizteko egiten diren itxura hutseko edo garrantzi gutxiko aldaketak.

b) Produkzio industrialeko eta zerbitzu hornidurako jarduerak, edo ondasun eta zerbitzuak banatzekoak. bereziki produkzio jardueraren plan-gintza; produkzioaren prestalana eta abiatzea, beraren barnean dela tresnak doitzea eta aurreko zenbakiko b) letran aipatzen direnak ez beste jarduerak; produkzioarako instalazioak, makinak, ekipoa eta sistemak eranstea edo aldatzea; etendako produkzio prozesuen problema teknikoak soluzionatzea; kalitate kontrola eta produktu eta prozesuen normalizazioa; merkatu ikerketak eta merkaturatzeko sare edo instalazioak ezartzea; jarduera horien inguruan langileak trebatu eta prestatzea.

c) Gizarte zientzien gaietan bilaketa egitea eta mineral eta hidrokarburoak esploratu eta ikertzea.

5. Nolanahi ere, subjektu pasiboak egindako ikerketa eta garapen gastuek edo berrikuntza teknologikoko gastuek harreman zuzena izan behar dute jarduera horiekin, eta zinez izanen dira jarduera horiek gauzatzeko, berariaz proiektuak banakaturik jasota.

Kanpoan egindako jarduerak sortu dituzten ikerketa eta garapen gastuek edo berrikuntza teknologikoko gastuek kenkaria izateko, nahitaezkoa da jarduera nagusia Espainian egitea eta ez izatea osotara inbertitu den kopuruaren 100eko 25 baino gehiagokoa.

Orobat, ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologikoko gastuetatik hartuko dira subjektu pasiboak berak edo beste entitate batzuekin elkar harturik, jarduera horiek Espainian egiteko pagatu dituen diru kopuruak.

6. Artikulu honetako kenkaria erabili nahi duten subjektu pasiboek kasuko zergaren aitortpenarekin batera aurreko zenbakiak aipatzen duen proiektua ere aurkeztuko dute, eta bai proiektua azaltzeko memoria bat ere, zeinean xehero jasoko baita proiektuarentzako gastuen aurrekontua eta gastu horiek zein alditan egotziko diren.

Aurkeztutako proiektuari dagokion kenkaria egin behar den aldi bakoitzean, zehaztu eta frogatu beharko da, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak agintzen duen moduan, zenbatekoak diren proiektuari egotzi zaizkion eta kenkariaren oinarri diren gastu sailak.

Zenbaki honetako lehenbiziko lerroak aipatzen duen dokumentazioa aztertutik, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura bidaliko dira artikulu honetako 2. zenbakiak aipatzen dituen ikerketa eta garapen jardueren proiektu

tu eta memoria, Departamentu horrek txosten batean azal dezan jarduera horiek betetzen dituztenez kenkaria aplikatu ahal izateko behar diren baldintza eta betebeharrak. Hala ere, subjektu pasiboak zilegi izanen du zuzenean delako Departamentuari eskatzea, instantzia batean arestian esandako dokumentazioa aurkeztuz, aipatu txostena eman dadila, zeina kasuko zerga aitortpenari erantsi beharko zaion.

Subjektu pasiboak zilegi izanen du azaltzea ez dagoela ados Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak jaulkitako txostenarekin (kenkaria aplikatu ahal izateko baldintzak betetzen diren ala ez erabakitzeko) eta kontuan hartuko da kenkaria egiten den zerga aldiari dagoen likidazioan.

7. Halaber, kenkari hau aplikatzeko subjektu pasiboak zilegi izanen du tributu administrazioari eskatzea balorazio erabaki aurretiazkoak har daitzela ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologikoko gastuetarako.

8. Zilegi izanen da erregelamendu bidez zehaztea zer kasutan aplikatuko diren artikulu honetan aurreikusten diren kenkariak eta arau hauek aplikatzeko behar diren arauak ere bai, eta bereziki zer prozedura izanen den balorazio erabaki aurretiazkoak hartzeko, aurreko zenbakiak aipatzen dituenak.”

4. 72.3 artikulua.

“3. Ez da zilegi izanen kapitulu honetan aipatzen diren kenkariak, salbu eta 63. artikuluko azken lerrokan eta 66 eta 71. artikuluetan agintzen direnak, denak batera gehiagokoak izatea kuota osoari hoberiak eta kenkariak kenduz ateratzen den kopuruaren 100eko 35 baino, zerga bera bi aldiz (nazioartekoa eta barnekoa) ez ezartzeko.

Zilegi izanen da kuota aski adinakoa ez izatea-gatik kendu ez diren kopuruak aplikatzea, lehengo muga bera begiraturik, aurreko bost urteetan bukatzen diren zerga aldietan eta ondorengoetan.

Zilegi izanen da kapitulu honetan aipatzen diren kenkariak aplikatzeko epeak honako kasutan luzatzea harik eta zerga aldi batean lehenbiziko, preskripzio epean, emaitza positiboak sortu arte:

a) Sortu berriko entitateetan.

b) Aurreko ekitaldietako galerak berdintzen dituzten entitateetan, hartarako baliabide berriak zinez aportatuz. Ez da halakotzat kontatuko erreserben aplikazioa edo kapitalizazioa.”

5. 167.1. C) artikulua.

“C) Gutxienez 500 milioi pezetako kapital propioa eta gutxienez 200 milioiko kapital gastatua duten entitateetan.

2. artikulua. Enplegua 2000. urtean sustatzea.

1. 2000. urtean hasten diren zerga aldietarako, subjektu pasiboek zilegi izanen dute Sozietateen gaineko Zergaren kuota osoari 200.000 pezetako kenkaria egitea Enplegu Bulegoan inskribatutako edo honako gizatalde hauetako langile langabe bat mugagabe kontratatzen duten aldiko:

a) Enplegu bulegoan jarraian hamabi edo gehiago hilabetetan inskribaturik egon diren langabeak.

b) Berrogeita bost urtez gorako langile langabeak.

c) Emakume langabeak, baldin 1998ko irailaren 16ko Ministerio Aginduak ezartzen dituen lanbide eta jardueretan aritzekoak badira (emakume gutxien kontratatzen diren lanbide eta jardueretan emakumeen enplegu egonkorra sustatzeko Ministerio agindua).

d) 30 urtez beherako eta honako ikastaroetako bat egindako gazte langabeak:

1. Lanbidean abiatzekoa
2. Eskola lantegiak eta lanbide etxeak.
3. Enplegu tailerrak.
4. Okupazio tailerrak.

2. Ez da zilegi izanen aurreko ataleko a), b) eta c) letretan aipatzen den kenkaria aplikatzea subjektu pasiboek kontratu mugagabe horiengatik 55/1999 Legeko 28. artikulua enplegua sustatzeko programarako ezartzen dituen pizgarriak hartzen dituztenean baizik (Neurri Fiskal, Administrazio eta Gizarte Ordeneko buruzko abenduaren 29ko 55/99 Legea).

Pizgarri horiek kontrolatzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuari bidaliko dio aurreko lerroak aipa-

tzen dituen kontratazio 2000. urtean egindakoen zerrenda, kontratatzaileak nor diren zehaztuz.

Aurreko lerroak d) letran ezartzen den kontratazioa egiteko, Sozietateen gaineko Zergaren kasuko aitopenean frogatu beharko da Hezkuntza eta Kultura kontseilariak agintzen duen moduan, gizatalde horietako pertsonak kontratatu direla. Behar adina frogatuko ere da pertsona horiek aipatu d) letra horretan aipatzen direnetako ikastaroren bat egina dutela.

3. Zilegi izanen da kenkari horiek bateratzea Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 71. artikulua ezartzen duenarekin, eta azken honentzat 72. artikuluan egiten diren xedapenak aplikatuko zaizkio.

Xedapen gehigarria Ondorengotza zergaren aldaketa

Ondorengotzei eta Ondare Eskualdaketei eta Egintza Juridiko Dokumentatuei buruzko zergen Arauetako 28. artikuluko 1 idatz-zatiko b) letrak (Foru Diputazioaren Erabaki batek onetsi zituen arauk 1970eko apirilaren 10ean), honako edukia eta testua izanen du hemendik aurrera:

“b) Bizitza aseguruak kontratuen hartzaileek diru kopuruak jasotzea, kontratatzailea eta hartzailea pertsona bana direlarik, salbu eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 14.2.a) artikuluan espresuki arautzen diren kasuetan.”

Xedapen indargabetzailea

Foru Lege honek indar hartzean indargabetu egingen da 1993. urterako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko ekainaren 30eko 9/1993 Foru Legeko seigarren Xedapen Gehigarria.

Azken xedapena Indar hartzea

Foru Lege honek, bertan aurreikusten diren ondorioak dituela, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean indar hartuko du.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko Foru Legeko 75.5 artikulua aldatzeko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko urriaren 16an hartutako erabakiaren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko Foru Legeko 75.5 artikulua aldatzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko Foru Legeko 75.5 artikulua aldatzeko Foru Lege proiektuaren biderapeña zuzena eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

Bigarrena.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Hirugarrena.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko Foru Legeko 75.5 artikulua aldatzeko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1990eko uztailaren 31n sinatu zuten hitzarmen ekonomikoko 27. artikulua ezartzen du Nafarroako Estatuan unean unean indar duten oinarritzko printzipio eta mamizko zein formazko arau berak aplikatuko dituela Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainaraztean.

Nekazaritza, arrantza eta garraioaren sektorei laguntzeko neurri presakoak hartzeko urriaren 6ko Errege Dekretu-legeak aldatu du Balio Erantsiaren gaineko Zerga ororentzako araubidean

arautzen duen Legea, eta nekazaritza, arrantza eta abeltzaintzaren araubide berezian diren sujetu pasiboek jasotzen duten kopuru jakineko konpentsazioa handitu.

Kompentsazio hori orain arte araubide horretako produktu edo zerbitzu osagarrien salmenta prezioaren 100eko 5koa ba zen, orain 100eko 8koa da nekazaritza ustiategientzako produktuak entregatu edo zerbitzuak ematen diren kasuetan, eta 100eko 7koa nekazaritza eta arrantza ustiategientzako produktuak entregatu eta zerbitzuak ematen direnean.

Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintzaren araubide berezian diren sujetu pasiboen tratamendua eta ororentzako araubidean izaten dena Nafarroako tributuen eremuan parekatzeko, aldatu egin behar da zerga arautzen duen legea.

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen aldaketa.

2000ko urriaren 7tik aurrera 19/1992 Foru Legearen 75. artikuluko 5 zenbakiak honako idazkera izanen du:

“5. Artikulu honetako 3 zenbakiak aipatzen duen kopuru finkoko konpentsazioa kalkulatzeko, zenbaki horretan aipatzen diren produktu edo zerbitzuen salmenta prezioari ondoren esaten diren estatik tokatzen den portzentajea aplikatuko zaio:

1. 100eko 8, nekazaritza edo baso ustiategientan lortutako produktu naturalen entregetan eta ustiategi horien zerbitzu osagarrietan.

2. 100eko 7, azienda eta arrantza ustiategientan lortutako produktu naturalen entregetan eta ustiategi horien zerbitzu osagarrietan.

Prezio horiek finkatzeko, ez dira kontatuko operazio horiek kargatzen dituzten zeharbideko tributua, eta ez erostunari aparte kargatzen zaizkion gastu osagarriak ere, hala nola komisioak, enbalajeak, porteak, garraioak, aseguruak, finantzarioak eta abar.

Diru kontraprestaziorik gabe egiten diren operazioetan, aipatu portzentajeak entregatutako produktuen edo egindako zerbitzuen merkatu balioari aplikatuko zaizkio.

Operazio bakoitzean aplikatu behar den portzentajea, konpentsazioa jasotzeko eskubidea sortzen den momentuan indar duena izanen da.”

Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Foru Lege proiektua

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehen.- Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari

buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2000ko azaroaren 24ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

C saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko foru plana

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000 urriaren 23an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko foru plana bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan.

Horiek horrela, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikularekin bat,

ERABAKI DA:

Lehena. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko foru plana tramitera onartzea.

Bigarrena. Hari buruzko iritzia Hezkuntza eta Kultura Batzordeak emanen duela xedatzea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko urriaren 25en

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

(Oharra: Planaren testua foru parlamentari jaun-andreen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Larrako Natur Erreserban eskian aritzeari buruzko azterlanak egin ditzan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Larrako Natur Erreserban eskian aritzeari buruzko azterlanak egin ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran tramitatzeko.

Larrako natur erreserbaren (NE-21) deklarazioa 1987an egin zen. 1993an hango erabilerean eta kudeaketaren plana onetsi zen, babes eremuekin batera. Geroago, aldaketak jaso ditu, Naturguneei buruzko azken urte horretako (1996) Foru Legeari behin eta berriz gertatu zaion bezala.

Aipatu horietatik heldu da natur erreserba horri aplikatzekoa zaion araubide juridikoa; jakina denez, inguru horretako jardueri ipar eskia gehitu zaie aspaldion, eta haren eragina handia da Erronkari ibarreko gizartean eta ekonomian.

Denbora pasa ahala, Erronkarriko bizilagunek, beren erakundeetan, batez ere Erronkari Ibarreko

Batzarrean eta udaletan ordezkaturik, adierazi izan dute neguko kirol jarduera hori sustatzeko nahia egun egiten den tokietan, bai eta eskiaren beste modalitate batzuetarako eremua handitzeko ere. Interesatu eta erabiltzaile horietako batzuek Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeari helarazi diote nahi hori.

Egoera honen aurrean eta kontuan izanik hasierako babesa ezarri zenetik denbora luzea iragan dela eta, batik bat, natur baliabideak antolatzeke plana ez dela egin ezta tramitatu ere, une egokia izan daiteke ukitutako lurraldearen azterlan orokorrari ekiteko; dudarik gabe, azterlan horren arabera jakinen da baimena ematerik dagoen ala ez eskian, modalitate guztietan edo batzuetan bakarrik, aritzeko, beste jarduera batzuetarako eta, halaber, horretarako behar diren instalazioak paratzeko. Egokitzen joz gero, Erronkari ibarreko erakundeen, bertako gizataldeen eta bizilagunen parte hartzea beharrezkoa izanen da.

Natur erreserbei aplikatzekoak zaizkien arauak ikusirik, proposatutakoari hasiera emateko oztoporik ez dago, ez eta aipatutako azterlanen eta beharrezko diren ebaluazioen ondorioz zehaztutako diren ondorioak gauzatzeko mugarik ere. Ebazpen proposamen honetan planteatzen den eskiera Erronkari Ibarreko Batzarreak berak ere egina du, behin baino gehiagotan; areago, Ingurumen Departamentuari ingurumenaren gaineko eraginaren azterlan bat egin zezan eskatu zion, proposatutako jarduerak Larrako Natur Erreserban izan dezaketen eragina ezagutu ahal izateko.

Izan ere, interes orokorraren deklarazioa egiteko ezinbestekoa da aipatutako aurrekariak aintzat hartzea.

Azaldutakoaren ondorioz, honako ebazpen proposamen hau proposatu da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, sei hilabeteko epean

Larrako Natur Erreserbak (NE-21) hartzen duen lurraldean eskian, modalitate guztietan edo batzuetan bakarrik, aritzeko lurrak erabiltzen jarraitzeko edo zabaltzeko behar diren azterlanak eta dokumentazioa egiteari ekin diezaion. Eta, behin azterlana eginik, erreserba horretako natur baliabideak antolatzeko plana, Erronkari Ibarreko Batzarrearekin eta ukitutako eragileekin batera, prestatzen has dadin, haren bidez, kirol erabilera hori eta erreserbako natur ingurunearen kontser-

bazio-egoera egokia bateragarriak diren ala ez jakiteko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du, eskian, modalitate guztietan edo batzuetan, aritzeko lurren kopurua handitu ahal baldin bada, eta N.B.A.P.n hala agertzen bada, erabilera hori interes orokorrekoa dela deklaratu dezan.

Iruñean, 2000ko urriaren 17an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da batzorde bat era dezan, hezkuntz etapetan hainbat ikasgairen irakaskuntza aztertzeko

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da batzorde bat era dezan, hezkuntz etapetan hainbat ikasgairen irakaskuntza aztertzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Hezkuntza da Nafarroako Demokratikoen Elkargunearen iritziz, gizarteak, oro har, eta botere publikoek, bereziki, herritarren bizi-kalitateari lehentasuna emateko egin daitekeen inbertsiorik onenetako bat. Kalitatezko hezkuntza baten aldeko apustua egin behar dugu, gizakiaren dimentsio

guztiak eta dimentsio teknikoak, prestakuntza orokorra eta espezializazioa uztartzeko. Etorkizuneko gizon-emakumeak –mundu globalizatuagoa, non elkarrekiko hartu-eman gehiago ere izanen diren– prestatuko duen hezkuntza bat izanen da. Gainera, delako hezkuntzak behar dituzten tresna intelektualak eta trebezia pertsonalak eman beharko dizkie herritar horiei, egungo eta etorkizuneko gizartearen erronkei jokoera kritikoaz, elkartasunez eta konpromisoen bitartez, aurre egin ahal izan diezaieten. Gure kultur tradizioan bilduriko jakintzek, komunikazioaren teknologia berriak, eta hizkuntzen ikasketak pisu espezifiko berezia izan beharko dute gure gazte nafar eta europarren curriculumean.

Aitortu beharra dago hezkuntza sistemak hobekuntza nabarmenak izan dituela, bai jende guztiarengana iristeari eta bai kalitateari dagokienez, baina hain da azkarra gertatu diren eta orain ere gertatzen ari diren aldaketaren abiada, non garrantzizko aldeak sortu baitira aldarrikaturiko helburuen eta lortutako emaitzen artean.

Egoera hori dela eta, bidezko jotzen dugu historia irakasten den hezkuntza-maila guztietan, helburu izatea ikasleek leku eta denboraren nozioak ongi barneratzea, bertako eremuetatik hasi eta urrunen daudenetara. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), Historiaren edukiek hiru eremu zehatz hartzen dituzte: eremu geografikoa, eremu historikoa eta gizarte zientziekin loturiko bestelako elementuak (arte, soziologia eta abar).

DBHn alor hauetan bilatzen den helburua da ikasleek, maila hori bukatzerakoan, Espainiako Historiaren etapa aipagarrienei buruzko oinarritzko ezagutzak izatea, hain zuzen ere egungo lan-bizitzak eskatzen duen guztiari eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko prestakuntza izan dezaten.

Helburu horiek direla eta, ikasgai horietako irakaslearentzat oso zaila izaten da kalitatezko irakaskuntza bat, orekatua eta osoa, ematea, kontuan hartuz aztertu beharreko historiaren etapa eta faseen zabaltasuna eta ikusirik Administrazio Publikoak ez duela kontrol handirik izaten edukien eta prestatzen diren programazioen jarraipenaren gainean.

Errealitateak erakusten digu alde handiak daukela testuliburuetan, eta zalantzarik gabe historia garaikideak duela lehentasun osoa, eta halako deskonexio bat gertatzen dela iragan urrunaren eta arestiko iraganaren artean: hutsean egiten da salto antzinako mundutik mundu modernora, Erdiaroa aipatu ere gabe.

Hori dela eta, beharrezkoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasleek gai honetan erdietsi beharreko helburuak finkatzea. Halaber, irakasleek jakin behar dute zein diren autonomia erkidego bakoitzean gutxienez irakatsi behar diren edukiak.

Asko hitz egin da azken hilabete hauetan historiaren irakaskuntzari buruz. Kritika asko egin dira historiaren ikuspegi lokalista erabiltzen dutenen aldetik eta alde batera utzi da erabat "gaztelazaleagoak" direnen ikuspegia. Espainiako errealitatea den bezalakoa da, bere nortasun ezberdinekin, eta horiek behar bezala azaldu izan balira, zenbait eztabaida antzu saihestu izanen ziren. Garrantzitsuena da eztabaidatzea irakatsi behar diren edukiei buruz eta ez zer historia mota irakatsi nahi dugun.

Nafarroan, LORAFNaren 47. artikulua ondo ezarri zuen: "Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketa eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan deusetan ukatu gabe gai honi buruzko manu konstituzionalean ezarritakoa, ez horiek garatzen dituzten lege organikoak, ezta ikasketa nahiz lanbide tituluak eskuratu, eman eta baliokidetzeko, hala nola berauek bete eta bermatzeko Estatuak duen goi-ikuskaritzaren baldintzak arautzeari dagokionez Estatuak dituen eskumenak ere".

Gure komunitateak, berak eskumenak dituen lurraldean, curriculuma ezar dezake. Hori dela eta, 1993an, Gizarte Zientzietako, Geografiako eta Historiako edukiak ezarri ziren. Azken arlo

horretan, Nafarroako Historiaren irakaskuntzarako helburu eta mugari nagusiak finkatu ziren (basakoiak, erromanizazioa, Iruña-Nafarroako Erresuma, Gaztelako Erresuman sartzea, liberalak eta karlistak, Nafarroako ondare kultural eta artistikoa eta abar). Helburua zen –eta oraindik ere da– ikasleek beren komunitatearen ikuspegi historiko bat izatea, ase senti daitezzen bizi diren eta parte diren lurraldearen ezagutzarekin.

Errealitate hori ez da osatu, eta gerta daiteke irudi lauso bat izatea, hain zuzen ere uste izatea Nafarroako ikastetxeetan Nafarroako Historiaren ikasketa curriculumean sartuta dagoela, Gizarte Zientzien, Geografiaren eta Historiaren irakaskuntzaren oinarritzko zati bat bezala.

Irudi lauso hori zor zaio, akaso, ikastetxeetarako berariazko material didaktiko lagungarriak ez izateari. Testuliburuetan, gehienetan, ez da aipamen argiri egiten Nafarroari buruz, eta Nafarroako Gobernuak ez du ezer ere egin horri buruz azken urte hauetan. Hori dela eta, irakasleek ez dute beren ikasgelarako programazioan Nafarroari buruzko edukirik, hain zuzen ere laguntza didaktikorik ez izateak berekin ekartzen dielako emendiozko ahalegin bat egin behar izatea, eta egun gauzak dauden bezala nekez egin dezakete hori. Nafarroako Gobernuak hezkuntza maila ezberdinetarako proposaturiko helburuak bete ahal izateko testuliburuak egin daitezzen gidatu, bultzatu eta sustatu behar du.

Nafarroako Demokraten Elkargunean uste dugu ezinbestekoa dela aurrera egitea eta egoera hau hobetzea, hain zuzen ere, alde batetik, ikuspegi lauso eta interesatuak saihesteko –zail gertatuko baitzen haiei eustea ikasleek Nafarroako Historia gehiago eta hobeki ezagutzuz gero–; bestalde, asko hobetuko luke hezkuntzaren kalitatea DBHn eta batxilergoetan. Hain zuzen ere, hezkuntzaren arlo hori hobetzea oso ere garrantzizkoa da gure Komunitaterako.

Nafarroaren errealitate historikoak bere ingurune jakinean ongi uztarturik egon behar du: Espainian eta Europan. Hori dela eta, egoerari ikuspegi orokor batetik (Europa), ikuspegi berariazko batetik (Espainia) eta ikuspegi zehatz batetik (Nafarroa) begiratu behar zaio. Horixe da bete beharreko helburua, eta botere publikoek erantzukizun gutzia dute helburu hori bete dadin.

Bestalde historiaren euskarazko tratamenduak ez du zertan eduki ezberdintasunik gaztelaniaz dauden testuekin alderatuta. Ez dago euskaraz berariaz testuak sortu beharrik, baizik eta itzulpen zuzenak egin behar dira gaztelaniaz ere erabiltzen diren euskarri didaktiko guztietan. Izan ere,

irakatsi beharreko historia bat da, ikasteko erabilzen den hizkuntza zein den alde batera utzita.

Hori dela eta, gure ustez, beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuak gaia aztertzea eta egoeraren jakinaren gainean egotea, historiaren tratamenduak eragin handia baitu erkidego guztien etorkizunerako. Historia, Artea eta Nafarroako erakundeak denboran zehar ezagutu eta aztertze-ko erakundeen laguntza eta adostasun politiko eta teknikoak behar da. Horretarako, gaiari zabaltasunez ekin behar zaio, kulturen, hizkuntzen eta ideien aniztasuna errespetatuz eta alderdikieriaz jokatu gabe.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du adituena batzorde bat sor dezan Nafarroako Historia, Geografia eta Gizarte Zientzien irakaskuntzaren arazoa azter dezan,

hasi Lehen eta Bigarren Hezkuntzatik eta Unibertsitateko irakaskuntzaraino. Batzorde horrek, urtebeteko epean, plan bat egin beharko du, aniztasuna, eraginkortasuna, zuzentasun historikoa eta Konstituzioaren ordena bezalako printzipioez jokatuta. Planaren bidez, konponbidea emanen zaio Nafarroako Historiari buruzko material didaktikoaren eta tratamendu egokiaren gabeziari.

Planak, besteak beste, ondoko oinarritzko printzipioak izanen ditu:

- a) Lortu beharreko helburuak.
- b) Haiek gauzatzeko behar diren baliabideak.
- c) Jarduteko egutegi bat.

d) Proposaturiko helburuak betetzeko behar den aurrekontua (giza- eta gauza-bitartekoetan).

Iruñean, 2000ko urriaren 15ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

F saila:
GALDERAK

Plan Gerontologikoaren garapenari buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Plan Gerontologikoaren garapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko eledun María Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

1997-2000 urteetarako Nafarroako Plan Gerontologikoa, 1997ko ekainaren 3an Nafarroako Parlamentuak onetsi zuena, hirugarren adinerako gizarte ekintzarako eredu gisa aurkeztu da, adineko pertsonak gizarteratzeko eta beren komunitateko giroan parte hartzeko printzipioan oinarriturik.

Hona planaren helburuak: helduek beren autonomiari eusten laguntzea, beren ingurunean iraun dezaten erraztea, behar diren zainketak emanez, osasun laguntza oinarritzakoaren eta laguntza espezializatuaren osasun zainketak bermatzea, haien eskubideak defendatzea eta behar den unean laguntza egokia emateko erakunde-zainketak ematea.

Plan Gerontologikoaren iraupena bukatzeko zorian dagoela, irudi du argi eta garbi bete den helburua dela erakunde-zainketak ematearena, etengabe ireki baitira hirugarren adinekoentzako egoitza pribatuak. Horrek berretsi egiten du 1997ko ekainaren 3ko Gizarte Gaien Batzordean Plan Gerontologikoari buruz esan genuena, ale-

gia, irabazi asmoko egoitza pribatuak egiteko plan bat baizik ez izateko arriskua zegoela, bestelako alderdi garrantzitsu batzuk ez baitziren garatzen.

Hori guztia dela eta, ezagutu nahi dugu Nafarroako Plan Gerontologikoak aurtengo irailaren 30ean eman dituen emaitzak:

1. Adineko pertsonak beren helbidean irauteko politikari dagokionez, etxebizitza zaharberritzeko, oinarrizko ekipamenduetarako, alokairuetarako eta oinarrizko gastuetarako laguntzak ezarri ziren. Planean ezarritako zenbatekoaren betetzea eskatzen dugu: 173 milioi (97), 180 milioi (98), 195 milioi (99) eta 200 milioi (2000), bereziki etxebizitzak zaharberritzeko kontusailarenak.

2. Halaber, adineko pertsonak bere etxebizitzan irauteko neurri gisa, adinekoari zuzeneko laguntza ematea ezarri zen, honako aurrekontuekin: 670 milioi (97), 880 milioi (98), 1.026 milioi (99) eta 1.073 milioi (2000). Etxez etxeko laguntzarako diru laguntza gisa, ondoko kopuruak jaso ziren aurrekontuetan: 421 milioi (97), 410 milioi (98), 383 milioi (99) eta 383 milioi (2000). Adinekoentzako laguntza zuzenen eta etxeko laguntzarako diru laguntzen betetzea eskatzen dugu.

3. Adineko pertsona zaintzen duen familiari laguntzeko neurri gisa, adineko pertsonak beren etxean gehiago iraun ahal izan dezaten, honako zenbatekoa –guztiz eskasa– ezarri zen material ortopedikorako laguntza teknikoak izenburupean: 10 milioi (97) eta 15 milioi (98, 99 eta 2000. urteetarako). Kontusail horren urteroko betetzea eskatzen dugu, bai eta erantzun positiborik izan ez duten diru laguntzetako eskarien zenbatespen ekonomikoa ere.

4. Halaber, adineko pertsona zaintzen duen familiari laguntzeko, familia zaintzailearentzako kalte-ordaina ezarri zen, urtean 100 milioiko aurrekontuarekin, 97, 98, 99 eta 2000. urteetarako. Kontusailaren urteroko betetzea, bai eta erantzun positiborik izan ez duten diru laguntzetako eskarien zenbatespen ekonomikoa ere.

5. Adineko jendea hartzeko aurreikusita dauden neurrien garapena. Adineko zenbat jendek jaso du horrelako neurrien onura, eta nolako balioespina egiten duen Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak baliabide horri buruz.

6. Arkitektura-oztopoak deuseztatzeko neurriak. Planean jasotako 120 milioiko aurrekontua bete al da? Ikusita Iruñeko auzo askotan -non adinduen zati handi bat bizi baita, eta alde batera utzi gabe gainerako herrietan dagoena- ezin dela gurpildun aulkian ibili, eta batzuetan beharrezkoa dela besteren laguntza eskatzea espaloietara igotzeko, epe laburrean zein neurri aurreikusten dira?

7. Garraio publikoa egokitzeko neurriak. Bete al dira planak jasotako 40 milioiko aurrekontua? zein neurri geratu dira bete gabe alor horretan?

8. Etxebizitza propioaren alternatiba gisa eta komunitateko ingurune propioan iraun ahal izateko neurri gisa, Plan Gerontologikoak nabarmen jaitsi zuen zainpeko apartamentuetarako hasieran zegoen 215 milioi pezetako hasierako aurrekontua amaierako 45 milioitara. Zenbat eskari metatu dira egoitza-baliabide horietan eta zenbat zainpeko apartamentu egin dira adinduentzat Iruñean eta Iruñerrian?

9. Halaber, jakin nahi dugu orain bukatzeko dagoen plan horrek norainoko garapena izan

duen elkarbizitza unitate txikiei dagokienez. Plan Gerontologikoan honako kopuruak jaso ziren: 175 milioi (98), 175 milioi (99) eta 234 milioi (2000). Kontusail horren urteroko betetzea eta adinduen eskura jarri diren unitateen kopurua.

10. Ezgaitasuna duten adinduak zaintzeko neurriak. Ondokoak jakin nahi ditugu: garatutako arau-neurriak, ezgaitasunen bat duten adinduak zaintzeko egun dauden antolamenduetan eta funtzionamenduan egin diren aldaketak.

11. Hirugarren adinekoentzat diren egoitzei buruzko barne araubidean eginiko aldaketak, egoitza horietako erabiltzaile diren adinduen esku-bideak eta betebeharrak bermatzeko.

12. Egoitza, elkarbizitzako unitate txiki eta zainpeko apartamentuetako erabiltzaileen lotura bereziko harremanen esparruko baimen, arau-hauste eta zehapenei buruzko arauetan eginiko aldaketak.

13. Nafarroako Gobernuak Plan Gerontologikoari, lortutako helburuei eta Plan Gerontologikoaren betetze-mailari buruz egiten duen balantzea.

Iruñean, 2000ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Hizkuntza politika berrikusteari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak hizkuntza politika berrikusteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoe-tan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak berriki, Nafarroako Gobernuari eusten dion taldearen laguntzarekin, hizkuntza politikari buruzko era-

baki proposamen bat onetsi zuen, non, laugarren idatz-zatian eskatzen zen eremu ez-euskalduneko euskarazko irakaskuntzaren egoera arautzeko.

Hori dela eta, ondokoa jakin nahi dugu:

1. Zein pausu eman ditu Nafarroako Gobernuak Parlamentuak emandako agindu hori betetzeko?

2. Zein alternatiba ari da aztertzen Nafarroako Gobernua eremu ez-euskalduneko euskarazko irakaskuntzaren egoera arautzeko?

3. Noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak Parlamentuak emaniko agindua betetzea?

Iruñean, 2000ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Eskola kontseiluak ezagutarazteko kanpainari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eskola kontseiluak ezagutarazteko kanpainari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoe-tan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari

Joan den maiatzean, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak aho batez onetsi zuen Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak gurasoek eskola kontseiluetan parte

hartzeari buruz aurkeztutako erabaki proposamen bat. Hartan eskatzen genuen Eskola Kontseiluak ezagutarazteko kanpaina bat egitea, gurasoek seme-alaben hezkuntza prozesuan duten parte-hartzea areagotzearen.

Erabaki proposamen horren onespina dela eta, ondokoa jakin nahi dugu:

1. Uste al du Nafarroako Gobernuak beharrezkoa dela Eskola Kontseiluak ezagutarazteko kanpaina bat egitea, gurasoei zuzendua, seme-alaben hezkuntza prozesuan duten parte-hartzea areagotzeko?

2. Zein neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak Parlamentuak emaniko agindua betetzeko?

3. Noiz aurreikusi du Nafarroako Gobernuak Parlamentuak Eskola Kontseiluak ezagutarazteko onetsitako erabakian aipatzen den kanpaina abian jartzea?

Iruñean, 2000ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Toki Administrazioiko bitarteko idazkari eta kontu-hartzaileei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Toki Administrazioiko bitarteko idazkari eta kontu-hartzaileei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoe-tan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari.

Nafarroako Toki Administrazioan aldi baterako ari diren idazkari eta kontu-hartzaileetako askok lanean duen ez-egonkortasuna agerikoa da, eta orain arte ez da izan horri konponbidea bilatzeko borondate politikorik. Arazo hori duten langileek behin eta berriz eskatu dute beren egoera arautzeko eta beren lanean egonkortasuna egon dadin, behar diren lege-neurrien bitartez.

Nafarroako Gobernuak, 1998an, arrakasta gutxiko ekimen bat gauzatu zuen lege mailan, baina egun oraindik ere ez da inolako mugimen-

durik sumatzen, guk dakigula, arazoa behin betiko konpontzeko.

Hori dela eta, jakin nahi dugu:

1. Prestatu al du Nafarroako Gobernuak administrazioak, idazkaritza eta kontu-hartzailetza arloan, elkartzeko alternatibarik Nafarroako eremuren baterako? Non? Zer moduz onartu dituzte proposamen horiek ukitutako toki entitateek?

2. Zein lege-neurri aztertzen ari da Nafarroako Gobernuak toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetako deialdietan dauden oztopoak gainditzeko?

3. Aurreikusita al du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Legea aldatzeko lege proiekturen bat, behin-behineko kontratuarekin lanean ari diren idazkari eta kontu-hartzaileen auziari konponbidea emateko?

4. Prestaturik al du Nafarroako Gobernuak inolako neurririk duela bi hamarkadatik hona idazkari eta kontu-hartzaile karguak eskuratzeko dauden mugek sorturiko aparteko egoerari eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen garapen ezari konponbidea emateko behar den berregituraketa administratiboan aurrera egiteko?

Iruñean, 2000ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Zeliakoen elkarteekin eta entitateekin Nafarroako Gobernuak egin beharreko negoziazioen egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak zeliakoen elkarteekin eta entitateekin Nafarroako Gobernuak egin beharreko negoziazioen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2000ko ekainaren 22an eginiko bilkuran, erabaki bat hartu zuen elikagaiei buruzko arauak direla-eta. Aipatu erabakiak berriaz aipatzen zituen glu-

tena daukaten elikagaiak, gaixo zeliakoengan eragin zuzena baitute. Erabaki proposamen hartan, Nafarroako Gobernua premiatu zuen Parlamentuak, egoki irizitako akordioak eta hitzarmenak egin zitzan zeliakoekin lan egiten duten elkarte eta entitateekin haien bizi-kalitatea hobetearren.

Hori dela eta, jakin nahi dugu

1. Hasi al ditu Nafarroako Gobernuak gaixo zeliakoekin lan egiten duten entitate edo elkarteekin izan beharreko elkarrizketak, Parlamentuak emandako agindua betetzeko?

2. Nola daude elkarrizketa horiek?

3. Prestatzen ari al da Nafarroako Gobernua lege proiekturen bat elikagaien gaineko arauari buruz, Nafarroan egin eta glutena daukaten elikagaien etiketak araupetzeko? Noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan aurkeztea aipatu lege proiektu hori, kontuan hartuz Parlamentuak sei hilabeteko epea eman ziola hori egiteko?

Iruñean, 2000ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Cintruénigoko kultura-azpiegituri buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cintruénigoko kultura-azpiegituri buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José

Lizarbe Baztán jaunak, Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, galdera egin du Cintruénigoko osasun azpiegituri buruz. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Ba al daki Gobernuak Cintruénigoko Udalak udal bulegoak zabaldu dituela eta bulegoak jarri dizkiela alkateari eta idazkariari, horretarako hartuta Kultur Etxeko erakusketa areto bat eta erabilerara anitzeko bi ikasgela? Kultur Etxea bere garaian kultur azpiegitura eta ekipamenduetarako kontusailetatik emandako diru laguntzekin eraiki zen. Orain, herria kulturarekin eta herritarren parte hartzearekin loturiko jarduerak egiteko leku egokirik gabe geratu da.

Uste al du Gobernuak neurri hori legezkoa dela, kontuan hartuta kultura xede zeukaten funts batzuekin egindako guneak direla, hain zuzen ere udaletxe duinagoak egiteko Toki Administrazioiko Departamentuak emandako funtsak, Toki Azpiegituren Hirurteko Planean aurrekontu-lerroa dutenak?

Ezagutzen al ditu Gobernuak Cintruénigon kulturarako gune behar adinakoa, egungo eta etorkizuneko beharrei aurre egiteko modukoa, egiteko Cintruénigoko Udala aztertzen ari den alternatibak? Baiezkoan, Gobernuak lehendik dagoen

eraikinen bat zaharberritu nahi al du, Udalak erosi eta gero, esate baterako elizetxea edo Avenida zinema, ala eraikin berri bat egin nahi du?

Aurreikusi al du Gobernuak ekonomikoki laguntzea, fondo galdurako diru laguntzen bitartez, Cintruénigon kultur etxe bat eraiki dadin? Baiezkoan, non eginen da? zenbateko laguntza emanen du Gobernuak?

Iruñean, 2000ko urriaren 18an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Cintruénigoko osasun-azpiegiturei buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cintruénigoko osasun-azpiegiturei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, galdera egin du Cintruénigoko osasun azpiegiturei buruz. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Uste al du Gobernuak eraikitzen ari diren Cintruénigo-Fitero Osasun Eskualdeko osasun-etxe berriaren kokapena, hain zuzen ere trafiko handia dagoen bi errepideren bidegurutzean, egokia dela bi herri horietako erabiltzaileei zerbitzu eman ahal izateko?

Uste al du Gobernuak proiektua, guztizko azaleraren eta banaketaren aldetik, egokia dela osasun arloko langileen betebeharrak betetzeko eta gaixoei behar bezala arretea emateko?

Uste al du Gobernuak aparkalekuetara autoz iristeko bideak eta oinezkoentzako sarbideak bermatzen duela erabiltzaileek behar besteko segurtasuna izatea?

Aurreikusi al du Gobernuak osasun-etxe horretan ambulanzia medikalizatua eta hari dagozkion giza-baliabide eta baliabide teknikoak jartzea arretea bermatzeko eta osasun eskualdean sortzen diren gaixo larriak eramateko?

Iruñean, 2000ko urriaren 18an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Cintruénigoko industria-azpiegiturei buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 23an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cintruénigoko industria-azpiegiturei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, galdera egin du Cintruénigoko osasun azpiegiturei buruz. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Uste al du Gobernuak zuzena izan dela Cintruénigon, saihebidetaren ertzean, dauden landalur batzuk, jabe pribatu batenak, industriarako lur bezala birsailkatzea, berriki gertatu den bezala?

Ezagutzen al zituen Gobernuak Udalak zituen asmoak Udal Plana onetsi baino lehen -hartan ezarrita zegoen landa lurak zirela horiek- eta birsailkatzeko espedienteak hasi baino lehen? Izan ere, Herrilan Departamentuak saihebidetaren gainean egin zuen zubiaren orientabideak Udalaren titularitatekoa den egungo industrialdea erreferentzia izan ordez, hain zuzen ere lursail horietara jotzen baitu, hain zuzen ere lehen landa lurak ziren eta orain industri lurak diren lursailletara.

Ezagutzen al du Gobernuak Udalak erosteko aukerari buruzko konpromisorik nahiz salerosketarako aurrekontraturik ba ote duen, lursailak birsailkatu aurretik nahiz haren ondotik egindakorik, birsailkatutako lursailletako jaberren batekin? Baiezkoan, zein erreferentzia daude horri buruz eta zein jaberekin dago konpromisorik?

Ezagutzen al du Gobernuak industrialde berrian lursailik erosteko nahiz lagatzeko konpromisorik ba ote dagoen, lursailak birsailkatu aurretik nahiz haren ondotik hartutakorik, pertsona edo enpresaren batekin industri edo merkataritza jarduerak ezartzeko? Baiezkoan, zein dira horiek?

Iruñean, 2000ko urriaren 18an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Dokumentuak argitaratzeko epe eta irizpideei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak dokumentuak argitaratzeko epe eta irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 18ko 72 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jau-

nak galdera egin du dokumentuak argitaratzeko epe eta irizpideei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria ordeztuz, Gobernuak Lehendakariaren urriaren 9ko 7/2000 Foru Dekretuarekin bat, eman duen erantzuna:

1. Lehendakaritza Departamentuak ontzat ematen al ditu Nafarroako Aldizkari Ofizialera bidaltzen diren dokumentuak argitaratzeko epeak?

Erantzuna: Ez.

2. Aldaketarik egin behar al du antolamenduan epe horiek laburtzeko?

Erantzuna: Duela gutxi Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzua sortu da uztailaren 3ko

248/2000 Foru Dekretuaren bidez –abuztuaren 7ko NAOn argitaratua–. Hartarako arrazoia, besteak beste, nola edo hala Nafarroako Aldizkari Ofiziala prestatzen, editatzen eta banatzen parte hartzen duten unitate organiko guztiak, egun bereziak direnak, biltzea izan da. Bilketa hori zenbait helburu lortzeko atzeraezina dela pentsatu da. Helburu horien artean lehentasuna izan du Nafarroako Aldizkari Ofizialera iristen diren dokumentuen argitaratzean arintasun handiagoa lortzea. Hartara, zerbitzu berria honako helburua erdietsi ahal izateko moduan osatu da: argitalpenak hamabi egunak ez gainditzea, itzulpen prozesua barne harturik, Estatuko Aldizkari Ofizialean gertatzen den modura.

3. Zein irizpideri jarraitzen zaio argitaratu behar diren dokumentuak hautatzeko?

Erantzuna: Zerbitzu berria sortu aurretik izan diren eragozpenak kontuan hartuz, batez ere aldi berean gaztelerazko eta euskarazko argitalpenen beharraren ingurukoak, nolabaiteko lehentasuna eman zaie gaia dela-eta atzeraezinak diren jarduerari edo testuan data zehatzak agertzearen ondorioz Nafarroako Aldizkari Ofizialean data hori baino lehen ezinbestez argitaratzeko beharra zuten haiei. Azken horren adibide dira deialdiak, probak edo kontratazioak.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko urriaren 9an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria, Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilaria ordeztuz: Ignacio Javier Martínez Alfaro



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

| | |
|--|--|
| HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » . | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA |
|--|--|